

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko Azaroak 27

Ale Berezia




II. Jardunaldiak

Herri

Komunikabideak

Arrasaten,
azaroaren 26an eta 27an

Herri
Komunikabideei
Buruzko II.
Jardunaldiak



ARRASATE AITZINDARI

- * **1988.** Abenduaren 2an ARRASATE PRESS lehenengoko aldiz kaleratu zenean, aro berri bat ireki zen Euskal Herriko herri komunikabideen historian.
- * **1990.** Otsailaren 13an ARRASATE TELEBISTA arrasatearron etxeetara lehen aldiz sartu zenean ere nahitaezko erreferentzi puntu bilakatu zen Euskal Herrian.
- * **1991.** Azaroan PRENTSA LOKALARI BURUZKO I. JARDUNALDIAK antolatu ziren Arrasaten.
- * **1992.** ARRASATE KOMUNIKABIDEAK (ARKO), Euskal Herriko lehen herri multimedia sortu zen. Aurrerapauso handia herri komunikabideen garapenean.
- * **1993.** Azaroaren 26an eta 27an HERRI KOMUNIKABIDEEI BURUZKO II. JARDUNALDIAK eratu dira.

URTE ZIRRARAGARRIAK IZAN DIRA DENONTZAT, BAITA ARRASATEKO UDALARENTZAT ERE, ZEREN EKIMEN GUZTI HAUEK GURE LAGUNTZA IZAN BAITUTE HASIERA HASIERATIK.

ESKERRIK ASKO ESPERIENTZIA HAU ERAIKITZEN LAGUNDU DUZUEN GUZTIEI ETA GURE DESIORIK ONENAK **HERRI KOMUNIKABIDEEI BURUZKO II. JARDUNALDIEI.**

EUSKARA BATZORDEA



ARRASATEKO UDALA


HERRI KOMUNIKABIDEEKIN

Mugarria



Oraingo honetan niri suertatu zait Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldietan parte hartuko duzuenoi ongietorria ematea. Nahiz eta komunikabideetan oso jantzia ez izan, jardunaldi hauek mugarriztat jotzera ausartuko naiz. Baina, zergatik? Alde batetik, 1991n izandako Jardunaldien ondoren mordoia direlako loratutako herri aldizkari berriak eta aipatzekoa delako garai hartan zeuden aldizkariak lortutako iraunkortasuna eta heldutasuna (250.000 irakurle). Beraz, zoriontzeko eta ongi-etorri beroenak luzatzeko arrazoi franko. Hor dugu Arrasate Press bera, astero-astero kaleratzen abenduan bost urte beteko dituen, eta bere garapen geldiezinaren ispili, urteurrenaren ondoren koloretan argitaratuko duguna. Bestalde, aurretik ez bezala, aldizkariak ez ezik telebista eta irratiek hartu dute parte Jardunaldi hauetan. Herri komunikabideen fenomeno soziala bere osotasunean aztertzeko paradigma ezinobea eskainiko digu horrek, bide batez herri multimediek duten etorkizunaren berri izan dugularik. Telebista eta irratietako lagunok, har ezazue beraz, gure agurrik beroena. Azken arrazoi nagusi bezala, eta hainbat herri komunikabidek lortutako heldutasunaren ondorioz, elkarlanerako garaia heldu zaigula esango nuke. Ez dut sinisten egitura erraldoi hutsetan; bai ordea eguneroko operatiban arazo konkretu amankomunei erantzun praktikoak ematen eta produktuak elkarlanean lantzen dituzten antolaketa apaletan. Jardunaldi hauetan hainbeste proiektu ezberdinetako ordezkariak elkarren berri izateko elkartzeak, elkarrengandik ikasteko eta elkarri laguntzeko aukera ezinobea eskainiko digu. Beraz, izan den-denok ongi etorriak jardunaldi hauetara!

IÑAKI ARANBURU
ARKOko LEHENDAKARIA



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).


ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.
Azaleko marrazkia: Mario Egües




Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Turismo Departamendua



Herri Komunikabideekin



Nola ikusten duzu herri-komunikabideen momentua?



Joxe Aranzabal ARKO

Momentu ona. Alde batetik

ona, eta bestetik kritikoa. Ona, nolabait hazi egin direlako eta neurri batean finkatu ere bai. Kritikoa, seguru aski hemendik aurrea gauzak hobetu behar direlako, kalitate handiago eskaini behar delako kompetentzia handiagoa dagoenez.



Joxe Jabier Iñigo Bagera elkarte (Donostia)

Bageran preparatzen ari gara horrelako aldizkari bat, urte eta piku ibili gara. Guretzat hau da momentu klabea, hemendik astebetera erabakitzen dugu aurrera goazen ala ez goazen. Normalean, baiezkotan, hilabete gutxira espero dugu egotea.



Itxaso Fernandez Aldizkari (Ikerlea)

Bi eredu daude na-

hiko ezberdinak: batzuk aste-kariak, eguneroko kontuak sartzen dituztenak, eta beste batzuk, trankilago dabiltzanak, hilabetekariak. Lan egiteko moduak eta, guztiz ezberdinak dira. Dirudienek, denak gora doaz baina.



Amaia Elosegi Irakaslea

Gipuzkoan oso ondo doala ikusten dut,

baina ni Nafarroan bizi naiz eta han, pattal samar. Ttipa-Ttapa soilik dago martxan, eta ez dirudi jendearen alde-tik edo, indar handiegirik dagoenik. Nahiko banatuta ikusten dut Gipuzkoakoa, Bizkaikoa eta Nafarroakoa.



Ana Gillegi Kaztetaritza ikaslea

Ni Elgetakoa naiz,

eta gure inguruan asko mugitu da asuntua, baina gure herrian... Egon zen Naste-Borraste izeneko gauza bat baina txarto, ez zuen aurrera egin, jenderik ez dagoelako edo igual dedikazio eskusiboagoa behar duelako. Eta ez dut uste udala prest dagoenik horretarako.



Mikel Garcia Random informatika etxea

Erronkari hasieratik

gogor eutsi dion jendea dugu, Arrasate Press eta Berrigara kasu. Beste batzuek ez dute eurek maketatzen, ez da beren lana, inprentarena baizik. Jende hori lana beren kasa egiten hasten denean —eta errentagarriagoa gertatuko zaie—, ikusiko da gainerakoetan Arrasate Pressen ikusi den arrakasta.



Luis Miguel Nuñez Alcobendasko komunikabideak

Komunikabideetan eragin handia du krisi ekonomiak. Iragarle eta enpresen inbertsio faltagatik, une honetan ezkorra naiz ni. Medio asko daude, baina gehienak porrotera doaz ez dutelako bizitzeko bitartekorik.



Eduardo Alvarez Hospitale- teko komunikabideak

Herri-

medioen garapena oso garaia da hemen. Harrituta geratu naiz, Kataluniarekin alderatuta, hemen inizatiba batez ere pribatua delako, Katalunian udalen behar batetik sortu den bezala. Garrantzitsua da hemen ekimenak ez direla zuzenki administrazioetik sortzen.



Karmele Tolosa Ttipi-Ttapa

Elkartu beharra ikusten dut

modu finko batean. Aurreko Jardunaldietan egon ginen eta geratu zen zalantza bat bezala horren inguruan. Uste dut orain momentua dela elkartzen hasteko.



Joseba Gorostiza Geu Gasteiz

Uste dut


kristoren indarra hartzen ari direla. Gure ikuspuntutik, Gasteiz batean, halako aldizkari bat egoteak zerbait esan nahi du, puntu ez-euskalduna baita. Horrek asko esan nahi du, baina ez dakit zer nolako bidea egingo dugun.



Iñaki Arruti Adorez eta Atseginez

Tenden-

tzia gorakoa da. Herri batzuetatik besteetara salto handia dago, agian gehiegizkoa. Azkar mugitu beharreko terrenoa da hau, erdal medio handien desentbarkoaren arriskua ikusten dut udalerrietan.



Patxi Azpillaga EHUkoa

Gehien-

bat herri aldizkariak dira atera direnak, eta itxuraz etorkizun komertzial handiena daukatenak. Irratietan, orain ari dira sortzen, legea dagoenetik, orain hasi dira egituratzen, eta horiek munizipalagoak dira. Orain etorriko dena eta ikusteko dagoena telebistena da; zailagoa eta garestiagoa da hori. Hor erronka handiagoa dago.

MIREN URKIOLA

Egunez egun, Oñati Irratia hezitzen

FMko 102. frekuentzian Oñatiko Irratia aurkitzen da. 1991ko maiatzean udalaren proposamen baten bitartez sortu zen. Oztopo handiak gainditu ondoren, oñatiarren belarrietarako ezaguna egitea lortu du herri-irratia honek, hiru oñatiarretatik batek entzuten du eta. Miren Urkiola ordiziarrek, jaitzen ikusi zuen eta gaur egun, irradi hori hezitzen dihardu.

—Nola dago egituratua irratia?

Oñatiko Irratia, irradi-batzorde batek osatzen du; irratian lan egiten dugun bi langileok, kultur-teknikari batek eta alderdi politiko bakoitzeko ordezkari batek. Dena den, irratia programazioa langileok egituratzen dugu, nahiz eta aldaketak etabar, batzordearekin konsultatzen ditugun. Dena den, alde horretatik askatasun osoz ibiltzen gara.

—Irratiaren bat eredu hartu zenuten Oñatikoa egiteko?

—Ez, egia esan, zer genuen ikusi eta horrekin egin genezakeenaren arabera eratu genuen gure irratia. Dena den, ni iritsi orduko, estatuak eginak zeuden eta ordu-rako irratia filosofia bat zuela esan daiteke. Badakit Euskadiko Irratiarekin harremanetan egon zirela, beste maila batetako irradi erresponstasibleago batekin, baina programazio guztia gure kabuz egin genuen.

—Eta audientzia?

Joan den ekainean azterketa bat egin genuen horren berri jakiteko eta oso emaitza onak jaso genituen. Dena den, inkesta horietan ez dakizu zein puntutaraino jendeak egia esaten duen; inkestaren arabera 3 oñatiarretatik batek entzuten du irratia, hots, herritarren %34ak gutxi gorabehera. Egia esan, oso emaitza onak dira eta oso pozik gaude.

—Irratiak, zein oztoporekin egin du topo hasieratik gaur arte?

Oñatiarren ohitura aldatzea, horixe izan zen gure lehenengo oztopoa. Jendea ez zegoen ohituta herri-irradi bat entzutera, beste irradi batzuk entzuten zituen. Arazo hori konpontzeko, beste irratiek ematen ez zutena eskeintzen hasi ginen gu. Ez genuen ezer galtzeko eta asko irabazteko, beraz, aurrera jo genuen. Guk herriko informazioa ematen genien, hurbilekoa, beste irratiek ematen ez zutena alegia; herriko kontuak, elkarrizketak... azken horrek asko erakartzen du entzulegoa, oso beroa da, herriko jendea delako elkarrizketatua eta oso emaitza onak atera ditugu. Orain dugun arazo handiena, arazo tekniko bat da: Irratia herriaren erdian dagoenez eta Oñati oso herri zabala denez, kanpokaldeko auzoetara ez da batere ondo heltzen frekuentzia, Arantzazun, adibidez, ez da batere entzuten.



Konponketa oso zaila da. Lege aldetik oso estu dago arazoa; E.Han ez dago udal-irratia legeztatzen duen legerik, badago orokor bat baina estatu mailan eta Legebiltzar-rrak ez du berea egin oraindik, beraz, ezin dugu irratiantena mendi puntara eraman, ilegala da eta oso arriskutsua.

—Zertan indartu da Oñati Irratia?

Lehenengo eta behin, jendeak irratia ezagutzea lortu dugu eta bestalde, jendeak irratia ezagutu zezan egin genuen ikastaro baten bidez, herriko jendea irratira sartzea lortu dugu. Kolaborazioekin betik kontaktatzen genuen baina guk eskatutako kolaborazioak izaten ziren, inizatibarik gabekoak. Jendea ez zen hurbiltzen irratira. Ikastaro haren bitartez, jendea irratia barnetik nolakoa zen erakutsi genion, baita saiok nola egiten ziren, albisteak... Lehenengo jendea irratia ezagutarazi behar zaio, gero hurbilduarazi.

—Herri Komunikabideek zer garrantzi dute?

Begira, sartzen gaituzte mundu batean, non Txinoak eta euskaldunak berdinak garelako uste duten. Badirudi pe-

likula berdinak ikusten ditugulako eta notizia berberak entzuten ditugulako, berdinak garelako, eta hori ez da horrela. Nahiz eta mundu guztiko jendeak Bosnian gertatzen dena egunero ikusi, baditugu informazioarekiko zenbait ezberdintasun; niri uraren prezioa igotzen badidate eta horrek hurbilago afektatzen nauenez, horrek arduratu egingo nau, eta azken finean informazio hori luzatzen didan komunikabidea herri-komunikabidea da. Hurbiltasun horren asko eragiten du.

—Zein puntutaraino izan daiteke herri-komunikabide bat komunikabide handien kompetentzia?

Adibidez, ez dut uste momentu honetan Euskadi Irratiaren kompetentzia izan gaitzkeenik. Guk ez dugu mundu mailako berririk tratatzen, baina Euskadi Irratiak herriz-herrikako saiorik egingo balu, orduan kompetitzeko gai izango ginatkeela uste dut, zeren Oñati txiki geratuko litzaieke eta ez lukete egunero Oñatiri buruzko gairik ikutuko. Gu gehiago emateko gai izango ginatke. Dena den, gu ez gara murgilduko kompetentziaren joku horretan.

FASTON

IKUSENTZUTEKOAK ETA BIDEO PROFESIONALA

SONY BANATZAILE OFIZIALA

FASTON - BIDEO PROFESIONALA SONY BANATZAILE OFIZIALA

Bideo profesionalean Sony-k eskaintzen duen teknologia aurreratua, FASTON-ek eskura jartzen dizu.



Gai honetan behar duzuna:

- Herri telebistak
- Sonorizazioa eta megafonia
- Aldibereko itzulpena
- Hitzaldietako sistemak
- Bideo-proiekzioa
- Irudien tratamendua
- Bideo profesionala
- Interkomunikazioa. CCTV
- Hizkuntz laborategiak
- Segurtasun elektronikoa
- DASH Audio digitala
- Komunikazioak

FASTON S.L.

Instalakuntza eta Proiektuen Gabinetete Teknikoa

Olite Eleberri, 2 Lonja


48012 Bilbao

Tfnoa: 444 72 66 - 444 74 91



FASTON - INSTALAZIOA

FASTON-eko teknikariak arduratuko dira Zerbitzurik onena eskaintzeaz, instalazioaren aurretik eta ondoren.



Publizistak, aldizkarien zutabe

Maria Agirre

Publizitatea ez da komunikabide handien eremura bakarrik mugatzen. Beren burua iragartzeko beharra ez dute enpresa handiek bakarrik. Egun, herri aldizkarien bizi-iturri bilakatu da publizitatea. Dendari txikiak ere, ohartuz doaz eskaintzen zaien aukeraren garrantziaz.

Orain dela gutxi, nork pentsatuko zuen etxeazpiko dendaria iragarkia jartzera animatuko zenik. Baina hala da. Komertziantek ausartu dira, herri aldizkarietan lehenengo, irrati eta telebista lokaletan geroago, iragarkiak jartzera. Fenomeno honen nolabaiteko "errudunak" herri aldizkarietako publizistak dira. Jakina da, hara eta hona mugituz eta makina bat komeria egin ostean lortu dela hori.

Honetan bat datoz herri aldizkarietako publizistak. Eraz astejariko publizistak, Eguzkiriñe Salterainek, hara zer dioten: "publizitatea kontratatze-ko mugitu egin behar da, hau da, kaleetatik ibili, dendarik denda edo telefonoan eskegita".

Karmele Tolosa, Ttipi Ttapa aldizkariako publizista berriz, negozio berriren bat zabaldu dela jakiten duenean, bertara hurbiltzen da: "den-

dariaren erabakia ez da berehalakoa izaten, beraz bere erabakiaren zai geratzen gara. Ondoren berriz ere bertara gerturatzen gara edo telefonoz deitzen diogu, nolabait salmenta bultzatu ahal izateko". ARKOk publizistek ere, kalean pasatzen dituzte lan ordu ugari. Baina hauetariko batek, Amaia Gabilondok, argi dauka bera ez dela inor konbentzitzen ahalegintzen: "dendariei behar bat badutela ikusterazten ahalegintzen gara. Zerbitzua eskeintzera joaten gara".

Beharra sortu eta zerbitzua eskeini nahi diete, baina egia da dendari batzuk ez dutela halakorik ikusten eta komunikabideari lagundu asmoz jartzen dute iragar-

MASAILARIAK
MASAIK ZARAI
MASAIK et
:OPA

errebak
Kirolak

POL-POL
TABERNA

KLASE
GUZTETAKO
GARAGARDOAK
ETA MEXIKAR
GIROA

76 07 78

URDAITEGIA

Merkatu Emparantza. 83
Bidebarrieta Kalea, 12
BERMEO

Ur. 688 02 96
Ur. 688 02 96

© 6310

© 6310

Dana emoten dogu
101.1 F.M.

...kia, hau da, mesede egin nahian. Baina poliki-poliki eta "hezitzaile" diren publizisten en onerios, pentsamol- nau aldatuz doa eta gaur 76 38 57. Eraz astejariko ardura- ak ere halaxe dio: "publi- aren lana, bezeroei zerbi- a eskeintzen diegula erakustea da, eurentzako



Komertzio handiek nahiago dute beste toki batzuetan iragartzea.

abantaila ugari dituen zerbitzu”.

KOMUNIKABIDE TXIKIAK, KOMERTZIO TXIKIAK

Garbi dagoena zera da, komertzio eta batez ere enpresa handiek, ez dutela euren burua herrian iragartzeko beharrik. Horregatik, dendari txikien iragarkiz betetzen dira aldizkarietako orriak. Alex Azkaratek, Berrigarako aldizkarian bi bezero moeta daudela garbi ikusten du: “enpresa handien beharrak Berrigarak ezin ditu ase, beraz iragartzen direnak komertzio txikiak dira batez ere”. Nekane Etxanizek lan egiten duen astekarian ere gauza bera gertatzen da: “Elgoibarreneko bezeroak, taberna, jatetxe, denda, enpresa txiki, ikastetxeak...dira”. Arrasate Presseko modulo gehienetan, komertzio txikien izek irakur badaitezke ere, gehienetan orrialde garestienak enpresa handiek erosten dituzte: “enpresa handiek ere badute interesa. Hain zuzen ere, herrian imagina zaintzeko jartzen dute iragarkia”, dio-

sku Amaia Gabilondok. Beraz herri aldizkariak, banaka ezin dira komertzio handien publizitate sareetara heldu. Baina guztiak batera?. ARKOKo publizisten ustez, hori aztertu beharreko gaia litzateke: “herri aldizkarietako publizisten artean ez dago harreman sendorik finkatuta. Baina koordinatzaile baten bidez posible izango litzateke, adibidez komertzio handi batek iragarkia jartzea ez aldizkari baten bakarrik, baizik eta guztietan. Hitz baten esanda, denok batu esparru zabala eskeintzeko”.

ABANTAILAK BADIRA

Komunikabide txikietan iragartzeak bere abantailak badituela behin eta berriro errepikatu digute publizistek. Espazioa saltzera joaten direnean ere, aldizkarian iragartzeak dituen onurez hitzegiten diete dendariei: “dendariei, euren bezeroak gure aldizkariaren irakurleak direla esaten diegu” dio Erazeko ardura-dunak. Berrigarako publizistak berriz, aldizkarian iragarkia

jartzea desberdina dela esaten die: “iragarkiak eta aldizkarietako albisteak batera doazenez, iragarkiak ere irakurtzen direla esaten diet. Hau da, iragarkiak orri solte baten bidaltzen ez direnez, ez dagoela segituan zakarrontzira joateko arriskurik”. Ttipi Ttapakoek ere, etxe guztietara iristen direla eta, dendariei iragarkia jartzea ezinbesteko da produktuaren kalitatea ondo zaintzea. Elgoibarren oraingoz behintzat ez dute arazorik: “herrian aldizkariak oso harrera ona izan duenez, bezeroak ere gustora daude aldizkarian egiten duten publizitateaz”.

PROFESIONALEN LANA

Publizitatea kontu handiz zaindu behar den saila denez, ezinbestekoa da arlo honetaz arduratuko diren langileak espezializatuak izatea. Garrantzitsua da, publizitatearen

trikimailu eta teknikak eza-gutzen dituzten jakitunak honetan aritzea. Alex Azkaratek dioskunez: “iragarkiak jartzen dituztenak ia beti berdina direnez, ezin diegu denbora luzean iragarki bera jarri. Iragarki desberdinak diseinatu behar zaizkie”. “dendariei publizitatea nola egin esan behar zaienez, lehenengo norberak izan behar ditu ideiak garbi” diote ARKOKoek. Eguzkiñe Salterainek ere, publizitatea eraginkorra izan dadin langilea ere kreatiboa izatea garrantzitsua dela dio”.

DIRU ITURRI GARRANTZITSUA


Krisia dela eta, publizistek ahalegin handiagoa egin behar dute. Izan ere ez dira hauek saltzen ibiltzeko garai onenak. Baina herri komunikabideek publizitateak jasotzen dituzten diru sarrerak erabatekoak dira euren jarraitpenerako. Beraz eta diru laguntzekin soilik aurrera jo ezin daitekenez, kontu handiz zaindu beharreko saila da.



EUDEL

Euskadiko Udalen Elkartea

Euskal Udalak ere
Herri Komunikabideekin



Jardunaldietara toki guztietatik etorri da jendea, eta jakina guztiek ez dute euskara ulertzen. Hala ere ez da euskarazko hitzaldiak ulertzeko arazorik izan, itzultzaileek fin eta

bizkor bete baitute euren lana. **Joseba Urkia, Juanjo Pagola, Lourdes Azurmen-di** eta **Karmelo Uribarren** arduratu ziren itzulpenetaz.



Azken momentuan beti egoten da zerbait egiteko. Hala eta guztiz, zertaz egitea onena da. Ordenagailuentzako mahaiak zikinak daudela, **Jose Felix Diaz de Tuestak** garbigailua hartu eta, listo, mahaiak garbituta.



Goizean goiz jendea heltzen hasi zen jardunaldietara. Guzti hauei ongi etorria eta akreditazioak emateaz, argazkian ageri

diren azafatak (neskak eta mutilak) arduratu ziren.

Ane Miren Arexola-Leiba, Miren Axpe, Miren Bengoa, Aitor

Lagunilla, Garikoitz Pereda eta **Jon Ozaeta** momentuorogu guztion zerbitzura egon dira.

PONENTEAK

● **Alberto Agirreazaldeg**i, 40 urte, Filosofia eta Letretan lizentziatua. UZEIko zuzendari orokorra izan zen. Elgoibarren aldirikariko talde eragileko partaide eta zuzendaria da.

● **Asier Aranguren**, 28 urte, kazetaria. Boston Universityn, telebista produkzio eta errealizazioan masterra egin zuen. Euskal Telebistan "Kirolez Kirol" saioko arduraduna da. ATBn aholkulari gisa ibilia, herri komunikabideei buruzko tesia egiten ari da.

● **Miren Urkiola**, 27 urte, kazetaritzan lizentziatua da. Ser Miranda eta Euskadi Irratian praktikak egin zituen. "Hemen" aldizkarirako hainbat erreportai egin ditu. Oñati Irratiko zuzendari arduraduna eta Oñatiko Komunikabideen zuzendaria.

● **Miguel Angel Elkoro-berezibar**, 27 urte, ingeles filologian lizentziatua. Enseñuraren aldirikariko eta Berrigara astekariko zuzendari ohia. Prentsa lokalari buruzko I. Jardunaldietan parte hartu zuen.

● **Sergio Juanena**, 33 urte, EHUUn kazetaritza ikasi zuen. Egin eta La Voz De Euskadi egunkarietan lan egin zuen. Ser Vitoria irrati katean ere egin zuen lan. Eusko Jaurlaritzako hezkuntza departamentuko prentsa burua izan zen. Egun, Arabako Diputazioko prentsa arduradun lanetan dihardu.

EUSKKe-

raren

Geroa,

Geurea.

Gure hizkuntzaren geroa sendotu behar dugu. Guraso eta belaunaldi gazteen arteko zubiak eraikiz kultura indartuz, urrats berriak emanez, gure nortasuna aldarrikatuz. Euskera geurea da, Euskal Herri osoarena, bere normalkuntza eta berreskurapena guztion ardura den bezalaxe. Horretantxe dihardugu.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Orain bi urte bezela, jardunaldiak LKSen burutuko zirela pentsatu zen. Baina azken orduan lekuz aldatu behar izan zen eta azkenean Gesalibar auzoko Aita Meni ospitalean egin dira. Leku aldaketak ez du galerarik suposatu, hau bezelako ekintzak burutzeko azpiegitura ezin hobea baitu ospitalak.



PONENTEAK


● **Joxe Aranzabal**, 41 urte, Historia Moderno eta Garaikidean lizentziatua. Arrasate Press eta ATBko sortzaileetarikoa eta lehen zuzendaria. Euskoletter komunikazio enpresa sortu du. Euskararen Berripapera, Herriko, Asmoz ta Jakitez, Pas De basque eta Campusa berripaperak argitaratzen ditu.

● **Teresa Agirreazal-degi**, 32 urte, historian lizentziatua. Infodoa enpresan, Emakundeko agiritegian, ETBko Artxibo eta La Documentation Francaise erakundean lan egin du. EHUan kazetaritza saileko dokumentazio irakaslea da. Telebistetako eguneroko informatiboetan ikus-entzuteko dokumentazioaren erabilera izeneko tesia ari da lantzen.


● **Carlos Soria**, 57 urte, zuzenbidean doktorea eta kazetaritzan lizentziatua. Europa Press eta Rotopress-eko zuzendari orokorra izana. Nafarroako Unibertsitatean, Informazio Zientzien fakultatean irakasle da eta Informazioaren Zuzenbide eta Etika departamentuko zuzendaria.

● **Joxe Manuel Iri-goien**, 30 urte, kazetaritza ikasi zuen. 1982az geroztik Ttipi Ttapa aldizkariako erredakzio kontseilukidea. Gaur egun aldizkari hone-tako zuzendaria da. Euskadi Irratirako ere hainbat lan egiten ditu. Prentsa Lokalari buruzko I. Jardunaldietan parte hartu zuen.

Jardunaldiotan denetik ikasteko aukera izan da eta argazkilariek ere euren ezagupenak sakontzeko modua izan dute. Hauei irakasten izan da **Fernando Mujika**, El Mundo egunkariko argazkilaria. Irakasleak karrete bana eman die ikasleei, eta hauek argazkiak ateratzen ibili dira. Irakaslea arduratuko da egindako okerrak argitu eta argazki onak nola egin azaltzeaz.



Bazkaltzea garrantzitsua da parentesia egin eta indarrak hartzeko. Auzo Lagunekok bazkaria prestatu zuten. Besteok, berriz, ponentzia eta tailerren gainean hitz egin eta jendea ezagutzeko aukerak aprobetxatu zituzten.



EUSKARA, DENONA.

Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia

EUSKARAREN SUSTAPEN ETA BULTZAPENA

Kanpainak:

- Sentzibilizazioa
- Transmisioa
- Matrikulazioa
- Erakusketak

Euskarazko argitalpenei dirulaguntzak.

Komunikabideetan euskararen erabilpena bultzatzeko laguntzak

Ikerketa soziolinguistikoak

HIZKUNTZ AHOLKULARITZA

Hizkuntz politikako baliabide eta legeriaz:


- Beste Departamentuei
 - Udal eta Kontzejuei
 - Partikularrei
- Testuen itzulpen eta zuzenketak

PRESTAKUNTZA

Administrazioko langileak euskalduntzeko Euskaltegia

- Ikastaro trinko eta estentsiboak

Lanean jarraitu beharra zegoen baina era berean lantegia lekuz aldatu behar zen, horregatik traste eta makina guztiak Aita Menni-
ra ekarri dira. **Txos Azurmendi** eta **Goio Aranak** ere euren ohizko ordenagailuekin maketatzen jarraitu dute. Izan ere, jardunaldiak bukatu ordurako alea egin beharra zegoen.



ATBko produktua inoiz baino handiago ikusteko aukera izan dugu. Sarreran jarri duten 56 pulgadako telebista erraldoiari esker inoiz baino hobeto ikusi genuen ATB. Irudia pantailara helarazteaz, berriz, etxeko langileak arduratu dira.



Ez ohizko eran eta tokian aurkeztu zuen Maider Eguesek informatiboa. Gainera, aurkezten zuen bitartean, berak ere ikus-

leak gertutik ikusi eta sentitu zituen. Ikusleek, nola ez, informatibo bat nola egiten den ezagutzeko aukera izan dute.

PONENTEAK


● **Fernando Muniozgu-ren**, filosofian lizentziatua. IRALE programaren arduradunetarikoa izana. Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuko burua. Soziolin-
guistikaz eta herri komu-
nikabideez zenbait artikulua
idatzi ditu.

● **Iñaki Erguin**, 31 urte, abokatu-ekonomista. AESDICAko (Asociación Española De Servicios Distribuidos por Cable) lehendakari ordea izana. CABLEDISeko zuzendari orokorra.

● **Jotxo Larrañaga**, 40 urte, kazetaria. ELAko prentsa bulegoan eta Gipuzkoako Foru Aldun-
diko Prentsa bulegoan lan
egin zuen. Egun, ETBn ari
da lanean.

● **Fernando Mugica**, 47 urte, kazetaritza ikasketak. Bilboko La Gaceta Del Norten hasi zen argazkilari lanetan. TVEn, Diario 16n eta Panoraman aritu da kazetari bezela. Argazkiak Time, New York Times, Blanco y Negro, Hola eta beste hainbat aldizkaritan argitaratu ditu. Gaur egun El Mundo egunkariko argazkilaria da.

● **Jose Inazio Armen-tia**, 32 urteko Eibartarra. Aldizkari eta Egunkarien diseinuan aditua. Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza Fakultatean Komunikabide Inprimatuen Teknologiako irakaslea. Ricardo Bermejoren orde-
z izan dugu Herri Komunika-
bideen II. Jardunaldi
hauetan.



Larre 67 urte ditu, eta 25 daramatza lanean Herrian. Aldizkariak datorren urtean beteko du mende erdia.

AITOR BAYO (ARGIA)

Emile Larre, Herria aldizkarikoa “Badugu esperantza laguntza ofizialetan”

Emile Larre Herria aldizkariko arduraduna da. Ipar Euskal Herriko euskal prentsako aldizkari nabarmenena da Herria. Larre baigorritarra da, 67 urte ditu, Irisarri eta Suhuskuneko erretorea da eta 25 urte daramatza Herria astekarian lanean, astero-astero Nafarroa Beheretik Baionarako joan-etorrian.

Luis Fernandez

— **Kontaiguzu apur bat noiz sortu zen Herria.**

— Herria sortu zen hain xuxen orain dela 50 urte, datorren urtean egingen ditugu 50 urteak, azaroaren 16an. Gerratea bukatzerakoan sortu zuen Pierre Lafittek. Zor

bat bazeukan, eta Lafittek bete zuen. Euskal Herriak bazuen aurretik Eskualduna astekaria. Hura sortu zen 1887an, eta orduan, 44erako edo, gelditu zuen Frantziako Gobernuak, gerrarekin. Lehenik, alemanekin behartu ziren ondo ibiltzen kazetak, diruarengatik eta horrela, eta

gero, giroa aldatu zen, eta frantses abertzale berriak etorri ziren, eta orduan kazeta asko gelditu ziren, gehienak frantsesezkoak.

— **Elizaren aldizkaria da? Nork du jabetza?**

— Ez da egundaino elizarena izan. Ez eta lehenagoko

Eskualduna hura ere. Lafitte ez zuten apaizek berek beren gustukoa, nahiago zuten hori baino konformistago bat. Ez da eliza jabea. Elkarte bat da. 44ean egin zen, Lafitte eta apaiz eta apaiz ez ziren zenbaiten inguruan egin zen. Bartzorde batek erabiltzen du Herria, eta ez du elizbarrutiak

hor ikustekorik, adiskidantza bestalde.

— Zenbaten artean egiten duzue aldizkaria?

— Lagunek ni ezarri nauten zuzendaritzan, lana nik egiten nuelako. Kazetaren egiteko han nago egun guztian, asteartean inprentan nago. Badituz Euskal Herri guztian laguntzaileak, kolaboratzaileak. Batek egiten dit politikaren itzulia, hori da Goiti; beste batek, Jean-Baptiste Dirassarrek egiten dizkit aste-ko gogoeta ere bai, egiten dit Haritxelharrek, zinema ere berak egiten dit. Bai ekonomia saila eta beste sei-zazpi badira horrelaxe. Gero herrietan badauzkat berrikeriak, 40 bat, bere herri edo auzokoa egiten dutenak. Horiek guztiek igortzen dituzte beren lanak, eta horrek asko laguntzen gaitu. Faxak asko laguntzen gaitu orain. Nik horiek guztiak biltzen ditut, eta idazkari bat eta idazkari-orde bat ditut laguntzeko asteartean. Eta horiekin egiten dugu, diruzko ahal gutxi-gutxirekin. Ordenagailuak daude inprentan eta, beraz, lan egiten dugu inprentan bertan. Gure bulegoa ere alde-aldean dago, eta egun hortako eskuz esku gaudela.


— Zein dira zuen diru iturriak?

— Harpidetzatik egin da egundainotik. Beste gauza asko egiten ditugun bezala. Iparralde honetan, besta bat egiten badugu, harpidetzen gainean dugu kontatzen kasik bakar-bakarrik. Guk ere horrelaxe egin dugu. Gero gauzak pixka bat hobetu dira eta sartu dugu publikitatea. Arras txarto ginen, behar bada administrazioa ez genuen hain ondo erabilia, eta zortetan ginelarik, egin genuen publikitatea biltzen hasi, gure herrietara deituz, herriko etxe batzuetara, anuntzio legalak

eransteko, eta heietarik oraino eta gehiago igortzen digute; enpresak ere bai. Eta horrela bildu genuen eta bete genuen gure zorra. Gero egin dugu ere hedatu gure harpidunen kopurua. Duela urte bat hil zen Laharbu genuen gurekin, leuzemia batek eraman zigun, baina lau urtez egin zigun hark administrazioa eta lan handi-handia egin digu. Harpidedunak? Orain 4.000 arras ez. Abonamenduz egin dugu, gutxi saltzen da.

— Diru-laguntza ofizialik bai?

— Pabeko Kontseilu Nagusiak ematen digu 10.000 franko (230.000 PTA inguru), eta hori aski berria dugu. Beharbada, badugu mentura dago eta ez da gizon txarra, eta horrela, esperantza pixka bat. Gero Eusko Jaurlaritzaren etorri zen, orain mementuan 20 edo 25.000 franko ematen digu. Baina onena, gure harpidetzen kopurua emendatu dugula, eta hark digu gure zorra hobekienik bete.



ure harpidedunen kopurua emendatu dugu, eta horrek digu gure zorra hobekienik bete”.

— Beste euskal komunikabideekin baduzue erlaziorik?

— Bistan da, jende bera dira berrikeriak batzuetan. Gure Irratiko Mattin Lartzabal bat ere, orain hartzen dugu guretzat asteen lan pixka bat egiteko, gutxi ordainduta, eta hori dugu ordaintzen dugun idazle bakarra. Besteak dohainik ari dira.

— Herriz herriko komunikabideak badaude Iparraldean?

— Ez. Koskor batzuk badira. Diren bi ezagunenak esango dizut, dira Zuberoakoa ‘Le Miroir de la Soule’ eta Amikuzeko ‘Journal de Saint-Palais’. Gero, orain ari dituzte ateratzen aldizkari batzuk, probisiorioak edo, Miarritzen ‘Biarritz-Culture’ adibidez, eta horrelako batzuk, baina euskaraz ezer ez, kasik ezer ez. Koskorak dira, publizitarioak gehienak, egiten duten lanaren ezagutarazteko.

— Ezagutzen duzu Hegoaldeko herrietako prentsa?

— Nik Hegoaldekoak hartzen ditut, Arrasatekoa eta beste asko ere. Ezagutzen ditut, geroz eta gehiago dituzue, bai.

— Uste duzu posible dela horrelakorik garatzea Iparraldean?

— Orain arte euskararik gutaz kanpo nork egin du? Ez apaiza naizelako, baina orain ere elizetan euskara egiten dugu, eta gehienik egiten dutenak euskaraz gu gara, oraindik. Ez dut hori xobinismoz esaten: Euskaltzaindian ere nahi nuke, denek bezala, geroz eta laiko gehiago ikusi. Baina errealitatea da hori. Iparralde honetan, gutaz kanpo, arras gutxi direla euskaraz egiten dutenak. Orain pixka bat Uztaritzeko Kultur-Etxea eta saiatzen dira, Seaska eta zer esanik ez, Xirrixta aldizkaria haurrendako; baina kazetarik, euskaraz bakarrik... Bozak eta hauteskundeak iza-

ten direlarik, orduan zerbait ateratzen dute euskaraz, baina hauteskundeendako da.

— Zein euskara molde erabiltzen duzue Herrian?

— Printzipioz euskara batuaren aldekoak gara, eta idazten dugu batuan edo batuari buruz. Hori horrela, batuan gogorregi ez gara joaten ahal oraindik, zeren eta gure irakurle goa hor da, eta irakurle goa, Iparralde honetan, gehiago da jende pixka bat xaharraide, adinean gora. Zuen aldean gaztetan den bezala maioria euskaltzaleetan, hemen zaharretan da, maleruski. Egiten dugu ahal den euskara batua, pixkana-pixkana aurreratuz. Kritika asko izan ditut nihaurk ere, hitz hau sartu dudala eta, baina bagoaz aitzina. Bakar-bakarrik kontu hartuz ea segitzen gaituzten. Segi eta ulertzen baldin bagaituzte, goazen gu aitzina.


parraldeko herri aldizkariak ez dute euskaraz kasik ezer ez, eta koskorak dira, publizitarioak gehienak”.

Nola ikuste



**Mikel Atxaga
Deia**

Herrietako komunikabideak oso beharrezkoak dira. Beharrezkoak euskararen egoeran, norbere hizkeratik baturantzako bidea eroso egiteko. Beharrezkoak herritasunarentzat. Urrutiko eta kanpoko kontuak bakarrik jakiten dituen herria arrotzu egiten da. Bertako bizikizunekin hezuramaitzen da herritasuna eta herriko bizitza. Arrasatek erdiz-erdi asmatu du horretan. Komunikabide egokiak sortu ditu. Mugimendu bateratu batek zuzpertzten ditu, gainera. Euskarak badu etorkizunik Arrasaten honela. Aurrera!



**Luis Alberto Aranberri
"Amatiño"
ETBren zuzendaria**


Gauregun bi indar kontrajari bizi ditu komunikabide-munduak: goitik beherako globalizazioa eta behetik gorako herri-eskaintza. Teknologo-aurrerapenak komunitate txikien aukera areagotu behar duen honetan, gero eta

indartsuago da globalizazioaren presioa. Tokian tokiko arnasari eustea da, besteak beste, herri-komunikabideen arronka.



**Odile Kruzeta
Euskadi Irratiko Informatiboen arduraduna**


Herri Komunikabideak ugalduz doaz. Ondo. Gure herrietako kultur kezka eta bizipozak bizirik dirauenaren seinale. Baina euskara batuak 25 urteko ibilbidea bete behar duen honetan, oraindik ere aspaldiko harriarekin egin dute topo. Nola ekarri euskara batura tokian tokiko hizkeraren gatz eta piperra? Erronka polita.



**Martxelo Otamendi
Egunkariako zuzendaria**

Batean eta bestean perretxiuak bezalaxe ugaldutuz diren herri komunikabideena izan da azken urteotan euskararen mundu ezofizilak eman duen sorpresarik handiena. Probintzietako erdal komunikabide handiei, informazioaz zein informazio bilketaz, itzal egitera iritsi dira eta gai-


nera irakurle erdalduna, galtzen duen herriko informazioa dela eta, inkomodatzera iritsiz, honek duen garrantziarekin. Herri komunikabide asko, idatziak batipat, benetako EPA (educación para adultos) delakoa egiten ari dira ia konturatu gabe eta oso pedagogia eraginkorrek.



**Jabier Salutregi
Egineko zuzendaria**

Teknologiarik aurrera-tuenerako sarbidea ematen duen botere ekonomikoa dela eta, komunikabide handiak iritzien sortzaile eta giza-jokabideen gidari eta hezitzaile bihurtu dira.

Informazio era alternatibo batek, giza-taldeentan ingurunerik hurbilenaren garrantzia jasoz, inmediate-tasuna azpimarratuz, gizabakoarengandik hurbilen dagoena hitzez eta irudiz jasoko duenak bakarrik egingo du gizartea libreago. Zentzu horretan, kazetaritza lokalak garrantzi erabakiorra du, bere jatorrian ez baitago manipulaziorik, gizakiak bizien sentitu duen gertakariarekin zuzen zuzenean uztartzen da, eta beste aldetik, erreinbidikazio, salaketa eta herri-defentsaren hazia da.



**Karmelo Otaegi
Gipuzkoa Herri
Irratikoa**

Mota denetarikoko komunikabideek, beren helburu nagusia ez bada ere, nagusienetakoa dute beren ikusle, irakurle edo entzuleengandik hurbil izatea eta aritzea. Loiolako herri irratia ikuspegitik are eta nabarmenago izan da hori beti edo helburu horrekin jokatu nahi izan dugu.

Horregatik eta herri komunikabideei buruz gure ikuspuntua eskatzen zaigunez, horixe azpimarratu nahi dut: Herri komunikabideek bere informazioa norentzat biltzen eta zabaltzen duten argi daukate. Baina garrantzitsuena: oso hurbil dute beren irakurleagoa, ikusleagoa edo entzuleagoa. Beraz, hurbiltasunean datza beren indarra eta herriarengandik jasotzen duten onarpena.

**Garbiñe Egibar
Gipuzkoako Diputazio-
ko Kultura Zuzendaria**

Herri komunikabideen sortze eta zabaltzeari guztiz pozgarria deritzogu, herri komunikabidea herrigintzarako eta euskararen normalkuntzaren bilakaeran tresna egoki direlako.

Herri mailako komunikabideak sortu dituzten kultur talde hauek, azken urteetan euskararen inguruan falta izan den adostasun eta kontsentsu

en gaituzte?


hori ere lortzen ari dira, euskalzaleon artean ezezik, euskaldun edo herritar guztion artean ere.

Ezpairik gabe, herri komunikabideekin zabalitzen den bide berri eta luze honetan parte hartzea beharrezkoa da. Baina bidea luzea denez, guztiok formula, baliabide eta errekurtso berriak gureganatzen saiatu behar dugu, ekintzak eta pausoak aztertuz.



Garbiñe Ubeda
Argiako zuzendaria

Herri komunikabideak baino askoz garrantzitsuagoak iruditzen zaizkit euskara taldeak berak. Komunikabide horiek oraindik pixka bat demostratzeko dute egin dezaketena. Egoera hobe batean, lortu beharko litzateke alde batetik komunikabide nazionalak eta bestetik herri komunikabideak uzartzeko modua. Ez dakit zein izan daitekeen bidea, beste hauen papera ikusteko dagoela uste dut eta.



Felix Ibagutxi
Diario Vasco-ko Zabalzen-eko arduraduna

Instituzio eta kultur-elkar-

teen arteko elkarlan formula horrek ekarri du aldizkariak debalde egin ahal izatea. Eta nola partitzen diren hainbat etxera, lehendik ohiturarik ez zukeen jende askok buzoian aurkitu du ez-ohizkoa den produktu bat. Aurrerantzean, zaila da baina lortu beharko litzateke formula hori eztabaidatzea eta komunikabide horiek eros ditzala beste motibazio bat daukan jendeak. Beste aurrerapausu bat izan da herri komunikabideak kultur esparruetatik ateratzea, komunikabide normalduagoak lortzea, gizarte, politika eta abarrekin.



Carmen Gurruchaga
El Mundoko zuzendari-ordea

Herritar guztiek nahi dute, lehenik eta behin, hurbilen dutena ezagutzeko; hori eta eta, herri komunikabideak izango dira etorkizuneko arrakasta. Hala ere, tokian tokikoaz ardua handiegia izan eta eta urrutien dagoena ez ezagutzeko arriskua dago, eta ez da hori gertatzerik komeni. Hori dela eta, ona litzateke hurbilekoa eta hain hurbilekoa ez dena bateratzea, izan ere azken horrek ere badu eragina gure bizitzan.



M. Karmen Garmendia
Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia

Azken urte hauetan euskararen eta kulturaren baitan somatzen ari garen gertakizun garrantzizko horietako baten aurrean gaudela uste dut. Inor gutxik pentsa zezakeen hau gerta zitekeenik. Alde askotatik da interesgarria guzti hau: euskararen normalkuntza alorrean, herritarri sor zaion eta interesgarri izan dakioken informazioaren alorrean, eta baita herri ekimenaren alorrean ere. Beraz, arretaz egindako ausnarketa merezi du.



Julian Beloki
Euskadi Irratiko Zuzendaria


Herri-komunikabideak, zerbitzu interesgarriak dira eta beharrezko ere bai herritarren artean berehalako komunikazio-bide izan eta ongi errotzen diren neurrian. Eskaintzen duten informazio-zerbitzuaren eta herritarren informazio-premien arteko oreka lortzen duten neurrian. Ahaztu gabe ez dagoela zerbitzu

orekaturik, kostu ekonomikoak ere orekatzen ez diren bitartean. Euskal Herrian, dirudienez, astekariaren arloan sortu da komunikabide-zerbitzu sendo-xamarra eta euskaraz, gainera. Bejondeiela! Irrati, telebista eta beste-lakoak, salbuespenak salbuespen, ikuskizun... Adi-adi jarraitu beharko etorkizuna, ikuspegi zabalago batetik dihardugun komunikabideontzat, geu ere ba gara-ta, norbera bere arlo eta neurrian, herri-komunikabide.



Bernardo Atxaga
Idazlea


Leku batzuetara joateko hobe izaten omen da Jeep-a Rolls Royce-a baino (Nabocov-ek esaten zuen). Hala, herri-prentsa beste handia baino. Beste modu batera ere esan liteke: xagua versus elefantea. Biba xagua!



Xabier Zubizarreta
Arrasateko Alkatea

Txiki askoren artean gauza handiak egiten dira. Herri komunikabideak eguzkia bezala dira, denok hartzen dugu baina inork ezin du eraman.

Karmengo Plaza 9an



Irudi-artxiboak
Grafismoa eta Animazioa
Eraikinen Kontrola
Medikuntzarako Ekipamendua
Aurkezpen eta
Irakaskuntzarako Sistemak
Telekonferentzia eta
Bideokonferentzia
Konektibitatea eta
Komunikazioak


Profesionalentzako soluzioak

BIENVENIDO GIL
SISTEMAS DE COMUNICACION

Karmengo Plaza, 9
Tfnoak: 21 79 91 • 21 79 92
Fax: 57 45 54
ZARAGOZA

Autoediziorako hiztegia

Autoedizio munduan, beste hainbat inguru profesionaletan bezala, argot berezia erabiltzen da. Hona, gaur egun aldizkariak egitean erabiltzen diren termino garrantzitsu batzuen izendegia.



PC. Ordenagailu Konpatibleak, hori dira PCak. IBMk markatutako eredutik, eta MS-DOS sisteman oinarrituta, oso sistema hedatua da, eta hardware nahiko merkea izateko abantaila dauka. Irudi eta maketazioan lan egiteko, oster, ez da egon hain aurreratu Windows sistema gehitu zaion arte, eta oraindik ere arlo horietan Macintoshen atzetik dagoela esan liteke.

Mac. Apple etxearen Macintosh ordenagailu eta sistemek hardware nahiko garestia daukate, baina baliabide grafikoen aldetik abantaila handiak ditu. Gainera, PCetatik egindako lanak Mac-era adaptatzeko gaitasuna daukate.

Editoreak. Maketatzen hasi baino lehen, idazketa beste programa batzuen bidez egitea komeni da; editoreen bidez (testu prozesadoreak ere esaten zaie). Mac munduan Word da editore


erosoena, eta PC arloan WordPerfect. Baliabide asko ditzute biek, baina ez dago guztiak ikasi edo erabili beharrik. Bestalde, testuak edizio programa batetik bestera, eta baita sistema batetik bestera, itzultzeko sistemak errazak dira lortzen eta erabiltzen.

Eskanerrak. Irudi bat digitalizatzeko, ordenagailuan sartzeko, aparailuak dira eskanerrak. Askok aurreratu dira makina hauek azken aldi honetan. Gaur egunean, 235.000 PTArekin kolorea 600 puntuko erresoluzioarekin eta zuribeltza 1.200 punturekin irakur dezakeen eskanerra eros liteke. Agfa etxeko Arcus eskanerrek negatiboentzako unitate bat daukate: hau da, negatiboak, diapositibak edo transparentzia eskaneatu ditzakete, paperera positibatu beharrik gabe. Eskaner bera PC edo Mac alorrerako erabil daiteke; PCetan PhotoStyler programarekin erabil daitezke eskanerrak eta Mac-ean PhotoShop-ekin.



Filmagailuak. Batzuek paperean eramaten dute aldizkaria irarkolara, paper horren erreproduzio fotogra-

fikoa eginez inprimatzeko; baina askoz ere kalitate hobea ematen du diskette batean eta irarkolan filmatzeak. Oso tramankulu garestiak dira, eta erabiltzen duten materiala ere garestia da: aldizkari baten zat ez da errentagarria horrelakorik erostea, irarkola behar duzu probetxua ateratzeko.




FreeHand. Marrazteko programa hedatuena; prentsa idatziko gaur egungo infografia guztia FreeHand-en egiten dela esan daiteke. Oso erraza da ikasi eta erabiltzeko, mapa, marrazki, koadro eta estatistikak adierazteko modurik erabilgarriena da. Baina teknika ez da guztia: FreeHand erabiltzaileak ukitu artistikoa ere behar du, marrazteko esku ona alegia, benetako lan politak egiteko.

Inprimagailuak. Hauek ere asko aurreratu eta merketu dira. Irarkolatik kanpo, frogak ikusteko behar baduzu, nahikoa zaizu 300 puntuko erresoluzioko Laser bat, 100.000 PTA inguruan. Kolorekoak ere badaude prezio horren inguruan, tintazkoak, baina ez dute kalitate handirik ematen, froga


batzuk ikusteko balio dute, baina ez askoz gehiago. Koloretan zerbait txukuna nahi baduzu, milioi bat behar duzu. Zuribeltzean 600 puntukoak ere badaude, modu profesionalean lan egiteko bezalakoak.

Kolorea. Koloretan lan egitea garestia da, eta jakin ere jakin egin behar da nola lan egiten den irarkolan, koloretan gauzak egiten hasi baino lehenago. Ezjakintasunetik gastuak handitu egiten dira, fotolito ugari egitera behartzen dituztelako irarkolak, gauzak errazago egin zitezkeenean. Koloreak bi eratan prozesatu daitezke: kolore lau gisa, edo kuatrikromian. Kolore lau etan, lau kolore arte erabil daitezke, baina lauek tonozehatzak izan behar dute. Kolorezko argazki bat sartzen badugu, ordea, bertako tonalitate desberdinekin, kuatrikromian inprimatu behar da, koloreen separazioa eginez. Koloreetako munduan sartu aurretik, galdetu eta ikasi.




Memoria. Bi hitz magiko: RAM eta ROM eta bi neurri, kilobyte-a (mila datu, K bat, esaten zaion bezala)

eta megabyte-a (milioi bat datu, mega bat). RAM lane-rako memoria da, eta ROM gordetzekoa. Mac arrunt bat 4 megako RAMeko memoriarekin dator, baina laster konturatuko zara, irudia erabiltzen hasi orduko, gutxi zuzaila. 20raino igotzea komeni da irudiekin erosoago ibiltzeko, eta hori ekipoa aldatu gabe egin daiteke, memoriako Simms zelula direlakoak gehituta. ROM memoriari dagokionez, hasieran ordenagailuak daukanarekin (40 mega inguru) laster gera zaitezke eskas. Orduan, periferiko batzuk jarri beharko dizkiozu ordenagailuari: disko mugikorak edo disko optikoak. Tramankulu hauen prezioaren kakoa bikoitza da. Mugikorak irakurtzeko behar duzun aparailua 80.000 PTA tan eros dezakezu, eta optikoentzat 200.000 balio du, baina diskoak berak garestiagoak eta estuagoak dira mugikorak (44 mega, 13.000 PTA), optikoak baino (128 mega, 6.500 PTA).




Monitoreak. VGA edo SuperVGA monitoreak dira arruntenak, eta normalean PCek izaten dituztenak. Trinitron monitoreak erresoluzio berekoak izaten dira, baina puntu txikiagoekin egiten dute lan, eta askoz ere argiago egiten da lan. Bista galtzeko arriskuan jartzen gaituzte monitoreek askotan: ugazabari presio egin behar zaio pantaila babesleak erosteko; garestiak dira, baina begiek eskertzen dute.



PageMaker. Maketazio programa ézagun bat. 4.2 bertsioan nahiko ondo molda zaitezke testuarekin soilik lana egin behar baduzu. Baina kolorea sartzeko eta irudia erabiltzeko orduan motz gera zaitezke. PCetako Windows sistamarako ere badago PageMaker bertsioa, eta hortik Mac-era itzultzea oso erraza da.


PhotoShop. Mac munduan irudia manejatzeko dagoen programarik onena une honetan. Milaka baliabide dauzka, eta ondo erabiltzen jakiteko argazkilaritza ere menderatu behar duzu. Memoria doitu behar da ordenagailuan programa honekin lanean hasi baino lehenago.



Pirateria. Jende guztiak dauzka programa piratak. Eta zenbat eta ugariago, orduan eta garestiago programa originalak. Pirateriaren zabalakundeak garestitzen du software-a. Programa pirata batzuek zailtasunak ekartzen dituzte asko erabiltzerakoan. Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta arriskutsuago.

QuarkXPress. PageMaker ordezkaten ari den maketazio programa. Era-

bilgarri eta erraza. Testua editatzeko tresna egoki bat faltan botatzen zaio. Kioskoan eros ditzakezun aldizkari gehienak horrela daude eginda.



Tipoak. Letra tipografian jende guztiak elkarri kopiatzen dizkio tipoak, eta piratearia oso hedatua dago. Baina tipo jakin batzuekin lan asko egin behar baduzu, hobe da tipo horren originala erostea, tipo piraten ondorioz arazo larriak gertatzen baitira. Tipo original bat 10.000 eta 50.000 PTA tartean dabil. Tipografiarekin lan egiteko, hobeto moldatzen dira Macintoshak PCak baino. Mac batean, tipoak sisteman integratzen dira eta programa guztietarako balio dute. PC batean, aldiz, tipoak programa bakoitzarekin doaz.



CD-ROM. Etorkizuneko giltza, memoria gordetzeko tresnarik onena. Compact-disc-aren formato bera da, baina ordenagailurako egokituta: CD bakoitzean 650 mega sartzen dira. Irudiak era horretan gordeko dira aurrerantzean. Dagoeneko, Donostian badago kolorezko argazkiak CDra itzultzen dizkizun etxe bat (100 PTA argazkiko).

Ez ahaztu izen hau: PowerPC

Bi konpainia nagusi aipatu ditugu gure hiztegitxoan, Apple eta IBM, eta badirudi lehia bizian daudela elkarrekin. Hala ere, konpetentzia gertatzen den arren, dagoeneko bi erraldoi horiek elkarlanean ari dira, gutxi barru informatika astinduko duen produktu berriak diseinatzen: PowerPC prozesadorea eta Pink sistema operatiboa.

1991ean elkartu egin ziren Apple, IBM eta Motorola PowerPC prozesadorea egiteko. Prozesadore edo txipak, ordenagailuen bihotza dira, operatzeko gaitasun ikaragarri eta azkar hori posible egiten duten tresnak. Gaur egun, PCek Intel prozesadoreak erabiltzen dituzte, eta Mac-ek Motorolaenak, baina laster, PowerPC hauek ordezkatzakete aurreko txipak.

PowerPCz hornitutako ordenagailuek, oraingo sistema operatibo ia guztiak erabiliko dituzte: berdin Mac-en 7 sistemarekin, edo PCetako MS-DOS eta Windows-ekin, edo UNIX sistemarekin. Ez hori bakarrik, azkarrago ere bai. Prozesatze bizkortasuna bost bider ere azkar dezakete prozesadore berriek. Adibidez, PowerPC batez hornitutako Macintosh batean frogak egin dituzte FreeHand programarekin, eta lau bider azkarrago dabilela ikusi dute. Noiz izango dugu tresna hori esku artean? 94 hasieran hasiko dira industrialki produzitzen, baina ikusi egin behar noiz heltzen den hona, eta zer prezioetan.

Bestetik, Apple eta IBMren elkarlanetik beste tresna bat ere garatzen ari dira: Pink sistema operatiboa. PowerPCk egungo sistema guztiekin egin dezake lan, baina Pink sistema espreski egokitua egongo da prozesadore berrira, bere baliabide guztiak erabili ahal izateko.

San Frantzisko kalea, 54, 1D. 200002 - Donostia
Tfnoa: 943-27 54 07

-
- * **Bideo eta Audio instalazioak**
 - * **"Broadcast" ekipamendua, telebista eta bideo ekoizleentzako**
 - * **Aholkularitza teknikoa**
 - * **Ikus-entzunezko Aurkezpenak**
 - * **Multimedia**
 - * **Ikastaroak**
 - * **e.a...**

Markak:

Matrox, Krasmer, Lowell, Porta Brace, Ikon, Canon, Akai Digital, Audiotechnica, Lexicon, Studer, Neumann, Digidesign, Sonic Solutions, Steinberg, JL Cooper, Opcode, Fatar, Coda Music Software, Dataton, Barco, Hamlet, Tascam, Electrovoice, Amcrom, e.a.

**IKUS-ENTZUNEZKO EDOZEIN
BEHARRETARAKO SOLUZIOAK**

Herri-komunikabideen zerrenda

Aldizkariak

AIAUPENANIK

Ana Gil
Udaletxea
Lakuntza 31830
Tf.:948-753262

AKATZ

Bego Perez
162 Postakutxa
Bermeo 48730
Tf.: 94-6885538

ARETXAGAZTEA

Jon Antxia
151 Postakutxa
Aretxabaleta 20530
Tf.:943-790105

ARRANONDO

Augustin Zubikarai
Aranatar Sabin
Ondarroa 48700
Tf.:94-6830287

ARRASATE PRESS

Arantzazu Loidi
Azoka, 1
Arrasate 20500
Tf.:943-770565
943-770940

AZPEITIAN ZER

Maria Pilar Arrieta
Udaletxea
Azpeitia 20730
Tf.: 943-881029
943-812730

BERRIGARA

Migel A. Elkoroberezibar
Errotalde Jauregia
Bergara 20570
Tf.: 943-760397

DEIADAR

Joseba Arruti
Foruen Plaza, z/g

Gernika 48300
Tf.: 94-6255589

DROGETENITURRI

Tomas Trifol
Ermua

DURANGO SWING

Ina Azkune
267 Postakutxa
Durango 48200
Tf.: 94-6201164

DZANGA

Zorione Aboitiz
Udaletxea
Lekeitio 48280
Tf.: 94-680001

ELGOIBARREN

Alberto Agirreazaldegi
Nafarroa Plaza, 2
Elgoibar 20870
Tf.: 943-741626

ENE BADA

Aloña Zubillaga
Aizkorri, A-Behea
Legazpi 20230
Tf.: 943-733788

ERAZ

Ima Eguen
Larresoloeta, 2
Durango 48240
Tf.:94-6201767

ETA KITTO

Fernando Muniozguren
Udaletxea
Eibar 20600
Tf.:943-118064

GALTZAUNDI

Joxemi Saizar
Plaza Berria, 1
Tolosa 20400
Tf.: 943-675607

GAUZI OK AU

Nerea Kaltzakorta
Idarraga, 10-3.a
Markina 48270
Tf.: 94-6166456

GEU GASTEIZ

Joseba Gorostiza
1.691 Postakutxa
Gasteiz
Tf.: 945-277477

GOIERRITARRA

Jon Mikel Arano
Dorre Etxea, Behea
Ordizia, 20240
Tf.: 943-889612

HERRIA

Emile Larre
11, Jacques Laffitte
Baiona 64100
Tf.: 59256285

HONDARRIBIA

Koro Eraso
Udaletxea
Hondarribia 20280
Tf.: 943-642340

IRINMODO

Iñigo Ramirez
Ibarrondo Auzoa, 1-2.a
Antzuola 20577
Tf.: 943-714157

KANTILAPE

Arantxa Artza
Udaletxea
Itsasondo 20249
Tf.: 943-881170

KARKARA

Iñaki Iturain
Herriko Plaza, 1
Orio 20810
Tf.: 943-831527

KONTZEJUPETIK

Iñigo Arregi
Kultur Etxea
Oñati 20560
Tf.: 943-716111

LAISTERKAN

Pello Astiz
Udaletxea
Arbizu 31839
Tf.: 948-460751

LOKOTXA

Iñaki Arruti
Zubieta Auzoa

MAILOPE

Pello Agiñarena
Udaletxea
Lekunberri 31870
Tf.: 948-504400

MURUGARREN

Koro Azkona
Udaletxea
Gares 31100
Tf.: 948-340007

NONDIK

Xabier Barandiaran
San Martin Auzoa, z/g
Ataun 20211
Tf.:943-881029

NUNTZEBARRI

Eduardo Iriondo
Errementari Kalea, 2-4.a
Mungia 48100
Tf.: 94-6156403

PULUNPE


Fernando Elortza
Atalloarra Taberna
Atallu 31891
Tf.: 943-651063

SANTAMARIÑE


Itziar Urrutia
54 Postakutxa
Sopela 48600
Tf.: 94-6763731



Fagor: goreneko Teknologia gizatzen.




Kontrol Numerikoak.



TB hargailuentzat ekipoa.



Produktzio automatizaziorako lineak.



Autoarentzat osagarriak.



Elektrogailuak.

35 urte haundi aurrerapenari
arnasa ematen.

Fagor-en seme zaharrena
petrolioizko estufa bat izan zen.

Gaur egun museorako balio
duen aparailu arrunt honek
funtsezko bi helburu bete zituen:
familiarako bero gozoa sortu eta
bere egileei enpresa-indarra eman.


Lurralde hortako industria
talderik indartsuena Fagor da.
Eta berak sortzen dituen
produktuak guztiz ospetsuak dira
nonahi ere, eta munduko bost
lurraldetan saltzen dira.

Alabaina, bada zerbait aldatzen
ez dena Fagor-en: aurrerapen
teknologikoak pertsonen bizitza
maila hobetzen erabiltzeko duen
gogo osoa, alegia.

Eta horretarako ikuspegi
humanista bati eusten dio ikerketa
zientifikoan eta bere iharduera
enpresarial guztian.

Eta gainera teknologia aldetik
etorkizun fantastiko sendatzen ari da.

130 edo gehiago produktu
egiten ditu Fagor-ek,
34 langintza desberdinetan.
Bere 13 enpresatan 8.000
lankide ari dira buru-bihotz.
110.000 miloi pezeta eta
gehiagoren salmentak egiten
ditu urtean % 30 atzerrira
salduz.



Teknologikoki fantastikoa

Herri-komunikabideen zerrenda

TTIPI-TTAPA

Jose Manuel Irigoien
Herriko Plaza
Bera 31780
Tf.: 948-631188

TTIKI-TTAKA

Kike Fernandez de Pinedo
Asa Ikastola
EKko Errioxa 1306
Tf.: 941-107141
941-107199

TXINTXARRI

Mila Eizmendi
Erribera, 1
Lasarte 20160
Tf.: 943-366838

ZERAIN

Andoni Alustiza
Kultur Etxea
Zerain 20214
Tf.: 943-880700

Telebistak

IRUN TB, KANAL 1

Iñaki Larrañaga
Av. Iparralde, 29
Irun 20300
Tf.: 943-632211

PLENTZIA TELEBISTA

Jose Angel Peña
Gatzaminez, 2
Plentzia 48620
Tf.: 94-6771895

URNIETA TELEBISTA

Mikel Pagola
11 Postakutxa
Urnieta 20130
Tf.: 943-330356

CANAL 7

Javier Pikasa
Karranzairu 6, 1.a ezk.
Barakaldo
Tf.:

TELESKO

Luis Miguel Lekuona
Olazar 8, entresuelo A
Eskoriatza 20540
Tf.: 943-714917

KANAL-ON

Felipe Flores
Amakandida z/g
Andoain 20140
Tf.: 943-594052

PAMPLONA TELEVISION

Javier Oderiz
Serafin Olave, 23 Bajo
Pamplona 31007
Tf.: 948-172931

TELEVISION VITORIA

Jesus Mari Rioja
Portal de Villareal 40,1
Gasteiz 01013

ATB

Andoni Urzelai
Azoka kalea, 1
Arrasate 20500
Tf.: 943-770690

TELEBILBAO

Enrique Campos
Hurtado Amezaga, 27
Bilbo 48008
Tf.: 94-4100422

ZARAUTZ TB

Iñaki Erguin
Gipuzkoa, 15
Zarautz 20800
Tf.: 943-131650

JAI TXIKI TB

Txikito
Poligono Zelaiondo, 20-2.B
Zarautz 20800
Tf.: 943-132829

Irratiak

ARALAR IRR.

Martin Juanena
Kontzejua

Lekunberri
Tf.: 948-604503

ARRATE IRR.

Bernardo Ibarra
212 Postakutxa
Eibar 20600
Tf.: 943-120161

BIZKAIA IRR.

Juan Mari Iraolagoitia
Fontetxa y Salazar, 9
Bilbo 48007
Tf.: 94-4466800

EUSKAL HERRIA IRR.

Mikel Bujanda
Santso Azkarra, 96-3.a
Iruñea 31011
Tf.: 948-170151

GERNIKA IRR.

Jose Angel Uriarte
Bizkaia, 6-3.a
Gernika 48300
Tf.: 948-6254963

GETXO IRR.

Iñigo Olondo
Urgull z/g
Getxo 48990
Tf.: 94-4690941

GURE IRR.

Xipri Alberbide
23, Passemillon
Baiona 94990
Tf.: 07-33-59593001

IRATI IRR.

Mikel Salba
Aribe
Aezkoa
Tf.: 948-764376

IRULEGI IRR.

Patxo Irigarai
Menta Irulegi
Baigorri 64430
Tf.: 07-33-59371411

LETZA IRR.

Pello

College San Frantzisko Xa-
bier
Ustaritze 64480
Tf.: 948-50400

RADIO GORBEA

Juan Bravo
Polvorin Viejo, 4
Gasteiz 01003
Tf.: 945-287337

RADIO NERVION

Enrique Campos
Hurtado Amezaga, 27
Bilbo 48008
Tf.: 94-4440805

RADIO 7

Jesus Mari Isusi
Karranzairu 6.a ezk. apart.
159
Barakaldo

OÑATI IRR.

Miren Urkiola
Kultur Etxea
Oñati 20560
Tf.: 943-716111

SAKANA IRR.

Yolanda Olasagarre
Tf.: 948-460751

SEGURA IRR.

Jose Elgarresta
Zurbano, 20
Segura 20214
Tf.: 943-801041

XORROXIN IRR.

Joseba Igarabide

XUBEROKO BOZA

Marzel Bedasagar
Irabarneko gaztelua
Maule 64130
Tf.: ?




RADIO ZORNOTZA

Iñaki martin, Jon
200 Postakutxa
Zornotza



IKATZ

ARGAZKIDENDA



Dendaraba, ☎ 14 82 96
GASTEIZ

Ecocentro
Los Herran, 34 ☎ 27 09 22
GASTEIZ

Ecocentro
Ptal. de Villarreal ☎ 28 36 01

Julian Etxebarria, 11
EIBAR

Iturriotz, 8 ☎ 77 04 01
ARRASATE

GASTEIZ - EIBAR
ARRASATE

GERTU



INPRIMATEGIA

Komunikazio bide

OÑATI (Gipuzkoa)
Zubillaga Industrialdea, 9
Tfnoa: (943) 78 33 09. Faxa: (943) 78 31 33

GASTEIZ (Araba)
Santiago, 29
Tfnoa / Faxa: (945) 28 67 13